

EAJ-PNVREN PROIEKTUAK LAZKAO HOBE BAT ERAIKITZEKO



Talde jeltzaleak proposamen ugari
landu ditu herriari onurak ekartzeko



Agintaldi erdia baino
gehiago igarota,
EAJ-PNVk balantzea
egin du

02-03



Lazkaoko EAJ-PNV
Udal Taldeak haien
karguen inguruan
hausnarketa egin
dute

04-05



*Agintaldi erdiko
balantzea*

AGINDUTAKOA BETETZEN, DATORRENA PRESTATZEN



Agintaldiaren ekuatorera iritsita, EAJ-PNVk aurkeztutako programaren erdia baino gehiago bete du. Baina hori ez da nahikoa: taldeak lanean jarraitzen du Lazkao hobe baten alde.



Legegintzaldiko ekuatorera iritsita, EAJ-PNVren udal taldeak balantze positiboa aurkezten du: hauteskunde-programaren erdia baino gehiago dagoeneko bete da edo bidean da. Horrek erakusten du konpromiso argia dutela hitza betetzeko eta Lazkao eraldatzen jarraitzeko.

EAJ-PNVk lehentasuna eman dio herritarren eguneroko bizitzan eragiten duten arloei: herriko azpiegituren hobekuntzari, auzoetako eta erdiguneko irisgarritasunari, udal zerbitzuen modernizazioari eta kudeaketa errazten duten neurriei. Era berean, garrantzi berezia eman zaie kultura, kirola eta gazteriari lotutako programen indartzeari.

Iraunkortasunaren aldeko pausoak ere nabarmenak izan dira: energia-eraginkortasuna hobetzeko inbertsioak egin dira, eta garapen ekonomiko eta sozial jasangarria sustatzen duten proiektuak bultzatu dira.

Euskara, berdintasuna eta merkataritza tokikoaren aldeko ekimenak indartu dira, Lazkao herri bizia eta inklusiboa bihurtzeko bidean.

Talde jeltzaleak gogorarazi du herritarrei aurkeztutako programa betetzea dela bere lehentasuna, eta legegintzaldiko bigarren zatian ere ildo horri eutsiko diola. "Gure lana emaitzak ematen ari da. Badugu oinarri sendo bat eta hortik abiatuta jarrai-

tuko dugu lanean", adierazi dute.

Legegintzaldi honetako lehen bi urteak agerian uzten dute EAJ-PNVren gobernu estiloa: gertukoa, arduratsua eta konpromituarekin. Helburua argia da: herritarren ongizatea eta etorkizuna bermatzea. Bide erdia egina dago, eta orain, erronka berriei aurre egiteko prest dira. Gobernatzen jarraitzea da beren erantzukizuna eta konpromisoa.

Gure hitza bete dugu eta bide erdia egina dago. Orain, herriarekin batera, urrats sendoak ematen jarraituko dugu Lazkao hobe baten alde.

CUMPLIENDO LO PROMETIDO, PREPARANDO LO QUE VIENE

El grupo jeltzale no se conforma: siguen trabajando por un municipio más habitable, sostenible y vivo.

• • • •

Al llegar al ecuador de la legislatura, el grupo municipal del PNV en Lazkao presenta un balance positivo: más de la mitad del programa electoral está ya cumplido o en proceso de ejecución. Este avance demuestra un compromiso firme con la palabra dada y con transformar Lazkao desde una gestión seria y cercana.

Durante estos dos años, se ha priorizado lo que impacta directamente en la vida de la gente: mejoras en infraestructuras tanto en barrios como en el centro, accesibilidad, modernización de los servicios públicos y medidas que facilitan la

gestión municipal. A su vez, se han fortalecido las políticas culturales, deportivas y de juventud, promoviendo un pueblo más dinámico y participativo.

Se han impulsado inversiones para avanzar en sostenibilidad y eficiencia energética, apostando por un desarrollo económico y social equilibrado. También se han reforzado las iniciativas ligadas al euskera, la igualdad y el comercio local, con el objetivo de construir una Lazkao más cohesionada e inclusiva.

El equipo jeltzale recuerda que su prioridad es cumplir con el programa presentado a la ciudadanía y reafirma su compromiso de seguir profundizando en esa línea en la segunda mitad del mandato. "Los resultados están llegando, tenemos una base sólida y seguimos adelante", señalan.

Estos dos primeros años muestran un estilo de gobierno claro: responsable, cercano y centrado en las personas. El camino está trazado, y el objetivo no cambia: garantizar el bienestar y el futuro de Lazkao. Han hecho la mitad del camino, y están listos para afrontar los retos que vienen con más ilusión y responsabilidad.

Hemos cumplido y seguimos avanzando. El objetivo es claro: una Lazkao mejor, contigo y para ti.



Elkarrizketa

Lazkaoko EAJ-PNVko Udal Taldea

LAZKAO HOBE BATEN ALDE LANEAN



Lazkaoko udal taldeak, herritarren ongizatea eta Lazkao hobea lortzeko helburuarekin, egunero lanean jarraitzen du. Datozen lerroetan, batzordeen arduradunek euren eginkizunak partekatzen dituzte, bakoitzaren lanaren bidez gure herriaren etorkizuna hobetzeko konpromisoa erakutsiz.



Ezkerretik eskubira: Aritz Goikoetxea, Amagoia Naldaiz, Aitor Altuna, Eneritz Miranda, Kepa Zubiarraín, Unbe Echaniz eta Josetxo Sese

Eneritz Miranda

Ogasuna, pertsonala eta kontratazio batzordearen kudeaketa eraginkorra burutzea beti izan dira ardurazko lana niretzat. Udalaren finantzak ezinbestekoak dira herritarrentzako zerbitzuak bermatu eta proiektu berriak egikaritzeko. Egiten dugun lanarekin herritarra erdigunean jarri eta etorkizun oparoagoa eskaintzea da gure nahia eta konpromezua.

Las finanzas municipales son imprescindibles para garantizar los servicios a la ciudadanía y la ejecución de nuevos proyectos. Nuestro deseo y compromiso es poner al ciudadano en el centro y ofrecerle un futuro más prometedor.

Josetxo Sese

Sustapen ekonomikoaren arloak merkataritza, ostalaritza, zerbitzuak, enpresak eta, oro har, industria lantzen ditu. Nire lana sektore horien zerbitzura jartzea da,

eta garatu ahal izatea bultzatzea, herritar guztien onerako izango baita. Tokiko merkataritza hobetzeko plan parte-hartzaile bat ere lantzen ari gara, eta merkatarien asoziazionismoa bultzatu nahi dugu. Industrialdea prest dugu inguru horretan finkatu nahi diren proiektuak jasotzeko.

El área de Promoción económica trabaja con el comercio, la hostelería, los servicios, las empresas y la industria en general. Mi trabajo es ponerme al servicio de estos sectores y favorecer que puedan desarrollarse, porque redundará en beneficio de todos los ciudadanos. Estamos diseñando un plan participativo de mejora del comercio local.

Unbe Echaniz

Gizarte Zerbitzuen eta Berdintasunaren Batzordean, arduraz eta hurbiltasunez lan egiteko konpromisoa hartzen dut, biztanleen ongizatea hobetuko duten politi-

Taldeak bere ardurapeko batzordeei buruzko hausnarketa egin du.

kak bultzatuz, berdintasuna sustatuz eta kolektibo ahulenak babestuz. Nire helburua da entzutea, elkarlanean aritzeko eta gizarte bidezkoago eta inklusiboago bat eraikitzen laguntzea.

Me comprometo a trabajar con responsabilidad y cercanía para impulsar políticas que mejoren la calidad de vida,

promuevan la igualdad de oportunidades y protejan a las personas más vulnerables. Mi objetivo es escuchar, colaborar y avanzar hacia una sociedad más justa e inclusiva.

Kepa Zubiarraín

Udal gobernua osatzen dugun taldeki-deok, 2023-2027 Gobernu Planean jasotako ibilbide-orrian aurrera pausuak ematen jarraitu nahi dugu, herritarrengandik iritsi zaizkigun behar eta proposamenei erantzunez eta etorkizuneko Lazkaoren oinarriak finkatuz. Lazkaok aurrera egiten jarraitu behar du inongo etenik gabe eta horretarako gure hoberena emateko konpromezua berresten dugu.

El quipo de gobierno municipal que-remos avanzar en la hoja de ruta recogida en el Plan de Gobierno 2023-2027, dando respuesta a las necesidades y propuestas que nos han llegado de la ciudadanía, así

TRABAJANDO POR UN LAZKAO MEJOR

Lazkaoko udal taldeak, herritarren ongizatea eta Lazkao hobea lortzeko helburuarekin, egunero lanean jarraitzen du. Datozen lerroetan, batzordeen arduradunek euren eginkizunak partekatzen dituzte, bakoitzaren lanaren bidez gure herriaren etorkizuna hobetzeko konpromisoa erakutsiz.

como implantando. Lazkao debe seguir avanzando sin pausa y para ello reafirmamos nuestro compromiso de dar lo mejor de nosotros mismos.

Aitor Altuna

Landa eremuko batzordean beharrak identifikatu eta lantzen ditugu. Herriko lurrak landu eta zainduz, bertako ekoizpen jasagarriak herritarren esku jartzea helburu bat da. Aldi berean baserriarren beharrak ere asebetzea tokatzen zaigu. Azpiegiturak eta eraikin titularitatearen egoera, HAPOaren lanketan, erdigunean jarri adibidez.

En la comisión de medio rural identificamos y trabajamos las necesidades. Es un objetivo trabajar y cuidar las tierras del pueblo, y con ello poner a disposición de la ciudadanía producciones locales sostenibles. Al mismo tiempo también nos toca satisfacer las necesidades de los baserri-tarras.

Amagoia Naldaiz

Kultura eta Euskararen Batzordean, gure bizitza kulturala sendotuko duten eta euskarari presentzia handiagoa emango

dioten ekimenak bultzatzeko konpromisoa dut. Sorkuntza babestu, ondarea zaindu eta kultura guztiontzat eskuragarri egitea da helburu. Herriko talde kulturalen lana bereziki baloratu nahi dut; haien dedikazioak eta sormenak gure nortasun kolektiboa aberasten du eta kultura bizirik mantentzen du. Haiekin elkarlanean jarraituz, ingurune kultural bizi, parte-hartzaile eta euskalduna eraikitzen lagundu nahi dut.

En la Comisión de Cultura y Euskera me comprometo a impulsar iniciativas que fortalezcan nuestra vida cultural y den mayor presencia al euskera. Trabajo para apoyar la creación, proteger el patrimonio y favorecer que la cultura sea accesible para todas y todos. Quiero además poner en valor la labor incansable de los grupos culturales del pueblo.

Aritz Goicochea

Kirola, Gaztedia eta Hezkuntza sailak asko motibatzen nauten eremuak dira, pasioz ulertzen ditut. Lazkao eratzen dugun kide guztion artean kirola sustatu eta hezkuntza landu, batik bat gure geroa diren gazteen behar eta interesak identifikatuz, elkarbizitatzat komunitate osasuntsu baten eraketan positiboki parte hartzea da nire helburua. Lazkao dinamiko eta asmo handiko batean sinesten dut non gazteek beren bizitza finkatu eta garatzeko aukerak dituzten.

El Deporte, la Juventud y la Educación son realidades que me motivan, las entiendo con pasión. Fomentar el deporte y trabajar la educación sobre todo identificando las necesidades e intereses de aquellos@s que son nuestro futuro, la juventud. Creo en una Lazkao dinámica y ambiciosa donde la juventud se establezca y disponga de las oportunidades para desarrollar su vida.

El grupo ha reflexionado comentado sobre las comisiones de las que son responsables.

Albisteak

KIROLDEGIKO OBRAK, AMAITZEAR

Lazkaoko EAJ-PNVk azpimarratu du kiroldegiko obrak amaitzeaz direla, hainbat urtez egindako lanaren ondorioz. Obra hauek, kirol eta aisialdi zerbitzuen eskaintza handitzea ahalbidetuko dute, eta herriarren beharrei erantzun hobea emango diete. Horrez gain, udalerriko etorkizunari begira, udalak lur sailak erosi ditu, hurrengo urteetan herriarrei beharrezko azpiegiturak eta zerbitzuak eskaintzeko.

Las obras del polideportivo en Lazkao están a punto de finalizar, con el objetivo de mejorar los servicios deportivos y de ocio para la ciudadanía. Además, el Ayuntamiento ha adquirido terrenos para garantizar que las futuras necesidades de la población sean atendidas con nuevas infraestructuras.



PARTE HARTZE PROZESUEN ERANTZUN POSITIBOA

Lazkaoko EAJ-PNVk legegaldi hone-tan parte hartze prozesu ugari jarri ditu martxan, eta erantzun ona izan dute. Gai ezberdinetan, hala nola aurrekontuak, festak, merkataritza eta HAPO, herriarrek iritziak eman dituzte. Esperientzia positiboa izan da eta prozesu gehiago bultzatu behar dira.

EAJ-PNV ha impulsado procesos participativos con gran respuesta, sobre temas como presupuestos y comercio.



UHOLDEAK EKIDITEKO EKINTZAK MARTXAN

Lazkaoko EAJ-PNVk, Foru Aldundia-renkin elkarlanean, uholdeak ekiditeko ekintza planak jarri ditu martxan. Eki-men hauek, uholdeen arriskua murrizteko eta herriarrei segurtasun handiagoa emateko helburua dute.

Lazkao ha puesto en marcha un plan conjunto con la Diputación para prevenir inundaciones, con el objetivo de reducir los riesgos y garantizar la seguridad de los ciudadanos.



GURUTZE AUZOKO PUNTRACK BERRIA, IREKITA

Gurutze auzoan puntrack espazio berria ireki da. Txirrindularitza, patina-jea eta skatea bezalako jarduerak egiteko aukera eskaintzen da. Zirkuitoko espazioak hasi berriei zein trebetasunak hobetu nahi dituztenei zuzenduta dago.

Lazkao ha abierto un nuevo pun-track en el barrio de Gurutze, ideal para practicar ciclismo, patinaje y skate, con niveles de iniciación e intermedio.



IBABE-HIRIBARREN URBANIZAZIOA GERO ETA ERAKARGARRIAGOA

Ibabe-Hiribarren urbanizazioa, Lazkao eta Beasain lotzen dituen bidea, gero eta erakargarriagoa da, oinezkoen eta en-presen beharrak asebetetzen dituelarik. Hutsik zeuden eraikin batzuk berriro ere jabe berriak dituzte, eta horiekin batera jar-duera berriak sortu dira. Urbanizazioaren bilakaera positiboak herriko ekonomia sustatzen du, garapen jasangarria eta bertako bizitzaren kalitatea bultzatuz.

La urbanización de Ibabe-Hiribarren, que conecta Lazkao y Beasain, se está convirtiendo en una zona más atractiva para peatones y empresas. Varios edificios vacíos han sido adquiri-dos para impulsar nuevas actividades. Este desarrollo fortalece la economía local y mejora la calidad de vida.



EKINTZAILEENTZAKO GUNEA DAGOENEO LAZKAON

Ekintzaileentzako gunea martxan jartzeko lanak amaitu dira. Lazkaoko EAJ-PNVren lanari esker, ekintzaile txikiak beraien proiektuak martxan jartzeko gune bat izango dute eta enpresa berrien sormenerako puntu izango da. Gune honen helburua herriko ekonomiaren garapena bultzatzea eta lanpostuak sor-tzea da. Proiektu honek Lazkaoko etorkizuna, berrikuntza eta ekintzailetza sustatzea izango du helburu.

Lazkao contará con un espacio destinado a emprendedo-res para lanzar nuevos proyectos y crear empresas. Este centro tiene como objetivo fomentar el desarrollo económico, la inno-vación y la creación de empleo en la localidad, ofreciendo un lugar adecuado para las nuevas iniciativas empresariales.



GERONTOLOGIKO GUNEA ETA ZUBIZKITZA AUZOKO URBANIZAZIOA

Lazkaoko EAJ-PNVk Zubizkitza auzoko urbanizazioa eta Ge-rontologiko guneko kaleen berrikuntza egokitzen jo du, hau da, herriko zaharren erabilerara egokitutako urbanizazio bat. Kale hauen berritzeak inguruko irisgarritasuna handitzea eta bertako bizitzaren kalitatea hobetzea ahalbidetu du. EAJ-PNVren udal gobernuaren lanari esker, auzoak bide berriak ireki ditu eta he-rritar guztientzako espazio erosoagoak sortu dira.

EAJ-PNV ha mejorado las calles de Zubizkitza y Gerontoló-gico, adaptándolas a las necesidades de los mayores y mejoran-do la accesibilidad en toda la zona. Gracias a esta intervención, el área ha ganado en calidad de vida y accesibilidad.



HERRIAREN EREMU NATURALARI LOTZEN DION BIDEA IREKIKO DA

Lazkaoko EAJ-PNVk herriaren eremu naturalari lotzen dion bidea irekitzeko lanak hasi ditu. Bide berri honek herriko meandroan oinezkoentzako irisgarritasuna eta mugikortasun iraunkorra hobetuko ditu eta ingurumenarekiko errespetuan oinarrituta, herriarren naturarekiko harremana, bizi kalitatea hobetu eta mugikortasun jasangarria sustatuko da, lazkaotarrak ingurune osasuntsuago batean bizi ahal izateko.

Las obras del nuevo camino peatonal en Lazkao mejorarán la accesibilidad en un entorno natural, conectando un espacio estratégico para la ciudadanía. El proyecto fomentará la mo-vilidad sostenible, proporcionando un acceso cómodo y respe-tuoso con el medio ambiente para los lazkaotarras.

Manifestua • Manifesto

EUSKAL KONPROMISOA MUNDUKO BAKE ZUZEN BATEN ALDE

Bakearen Nazioarteko Eguna dela eta, 2025eko irailaren 21ean aurkeztua

Sudan, Yemen, Myanmar. Kongo, Etiopia, Sahel, Nigeria, Somalia, Siria, Afganistan, Sahara, Armenia, Ukraina, Gaza... Gerrak edo gerra-erasoak sufritzen ari diren hamalau lurralde.

Badira beste batzuk, baina horietan dira egoera larrienak nazioarteko begiraleen arabera. Gaur, Gazak eta Ukrainak lehentasunez interpelatzeko gaituzte europar gisa. Basakeria bukatzen ez den artean, honako posizio hauek bizirik mantenduko ditugu:

Kondenatzen dugu:

- Errusiaren inbasioa Ukrainan, milaka biktimarekin hiru urtean.
- Hamasen atentatu terrorista, 2023ko urriaren 7an, 1.200 biktimarekin.
- Gaza eta Zisjordaniaren aurkako genozidioa, 70.000 biktima baino gehiago bi urtean.

Exijitzen dugu:

- Netanyahuaren gobernuari, Palestinan egiten diren eraso bortitz guztiak bertan behera uzteko eta Gazako herri-tarrei laguntza humanitarioa erabat eskuratzeko bermea emateko, eskatzen diogu.
- Putinen gobernuari, Ukrainako lurraldearen inbasioaren amaiera.

Presatzen dugu:

- Europar Batasunari eta NBERi, neurri irmoak eta nazioarteko bitartekaritza bultzatzeko.

Euskadin konpromisoa hartzen dugu:

- Gerraren, terrorismoaren, indarkeriaren eta giza eskubideen urraketen bidegabekeriari buruzko memoria kritikoa egiteko.
- Giza eskubideen unibertsaltasuna eta eraso beliko eta bortitz guztien biktimetikiko bakearen, justiziaren, bizikidetzaren eta elkartasunaren kultura defendatzeko.



COMPROMISO VASCO POR UNA PAZ JUSTA EN EL MUNDO

Presentado con motivo del Día Internacional de la Paz, el 21 de septiembre de 2025

Sudan, Yemen, Myanmar, República Democrática del Congo, Etiopía, Sahel, Nigeria, Somalia, Siria, Afganistán, Sahara, Armenia, Ucrania, Gaza... Catorce escenarios azotados por guerras o agresiones bélicas.

No son los únicos, pero si los más graves según los observatorios internacionales. Hoy, Gaza y Ucrania nos interpelan con prioridad como europeos. En tanto no cese la barbarie, mantendremos vivas las siguientes posiciones:

Exigimos:

- Exigimos al Gobierno de Netanyahu el cese de todo ataque violento en Palestina y la garantía del pleno acceso de la ayuda humanitaria a la población de Gaza.
- Al Gobierno de Putin, el fin de la invasión sobre territorio ucraniano.

Urgimos:

- A la Unión Europea y a la ONU a impulsar medidas firmes y mediación internacional.

Condenamos:

- La invasión rusa de Ucrania, con decenas de miles de víctimas en tres años
- El atentado terrorista de Hamas, el 7 de octubre de 2023, con 1.200 víctimas. El genocidio contra Gaza y Cisjordania, más de 70.000 víctimas en dos años.

Nos comprometemos en Euskadi

- A una memoria crítica sobre la injusticia de la guerra, el terrorismo, la violencia y las vulneraciones de derechos humanos.
- A defender la universalidad de los derechos humanos y una cultura de paz, justicia, convivencia y solidaridad con las víctimas de todas las agresiones bélicas y violentas.



**MANIFESTUA
OSORIK
MANIFIESTO
ÍNTEGRO**



MENSAJE QUE COMPARTIMOS CON LAS PERSONAS MIGRANTES

En Euskadi contamos con el Pacto Social Vasco para la Migración, con el que el PNV se identifica plenamente. Su título es "Ofrecer lo que deseáramos recibir".

Somos un pueblo que ha necesitado migrar. Muchos de nuestros antecesores tuvieron que hacerlo por motivos políticos o económicos.

Hoy, llegáis a Euskadi de Sudamérica, Magreb, África, Europa del este y otras latitudes. Os damos la bienvenida. No solo es una palabra de cortesía.

Nuestra bienvenida es un compromiso. Queremos que Euskadi ofrezca condiciones dignas y justas de acogida e inclusión en igualdad de derechos y obligaciones.

Tenemos una identidad y un idioma propio, el euskera, y quisiéramos que las hicierais vuestras. Somos una nación, Euskadi y tenemos un proyecto político nacional que queremos que compartáis con nosotros.

La sociedad vasca necesita la inmigración para responder a sus propias necesidades laborales y demográficas. Vuestra contribución es valiosa.

En definitiva, creemos en un compromiso ético y compartido que apela a la solidaridad y la convivencia.

Nota: este mensaje es una actualización de otro, con un espíritu similar, publicado en diciembre de 1971 en el órgano del PNV, "ALDERDI"

BI EREDU

 *etorkizun desberdina* **Gipuzkoarentzat**

X AUTOKRITIKA EZA

Haiek dira soilik arrazoiaren jabe. Arerio politikoa deabrutzen dute.

X B AURPEGIA

Katastrofismoa eta ondoeza astintzen dituzte, bere kontrolpean dauden plataformen eta erakunden bidez.

X ADANISMOA

Dena beraiekin hasiko baltz bezala jarduten dute, lortutakoa gainontzekook lortu ez bagenu bezala.

EUSKAL EREDUA ✓

EAJ-PNVren ereduak oinarri du: autoexijentzia, nazio-anbizioa, akordiorako borondatea, errespetua, errealismoa, apaltasuna eta erreforma-bokazioa.

NORTASUNA ✓

Herri nortasunak eta etorkizunak bultzatzen gaitu. Euskal gizartea osatzen duten pertsona guztien beharrei aurrea hartu eta erantzuteko konpromisoa dugu.



X KEA SALTZEA

Errealitatetik eta haren konplexutasunetik kanpo mugitzen dira. Espektatiba faltsuak sortzen dituzte.

X ADOSTASUNERAKO GAITASUNEZA

Ez dira gai entzuteko eta akordioetara iristeko. Uste dute beraien tesiak bakarrik direla onargarriak.



OINARRI SENDOAK ✓

Bokazioz inkonformistak gara. Herri honekin konprometituta gaude eta etengabeko eraldaketan sinisten dugu.


HOBEEKUNTZA ✓

Elkarlanean Euskadi hobe bat eraiki nahi dugu. Batu zaitez zu ere!



Gipuzkoan EAJrekin elkarlanean aritu nahi baduzu, idatzi mezu elektroniko honetara
Si quieres colaborar con el PNV en Gipuzkoa
escríbenos a este correo electrónico:

iritziak@gipuzko.eus





Lagundu iezaiguzu hobetzen.
Baloratu ezazu gure lana.
Ayúdanos a mejorar.
Valora nuestro trabajo.



GIPUZKO BURU BATZAR

*Jarrai gaitzazu sare
sozialetan eta bilakatu
gure komunitatearen parte!*



eaipnvgipuzkoa



eaipnv.gipuzkoa



EAJPNVGipuzkoa



iritziak@gipuzko.eus



eaipnvgipuzkoa



www.gipuzko.eus

LAZKAO



EAJLazkao



EAJ PNV Lazkao



eaipnvlazkao



lazkaoeajpnv@gipuzko.eus



www.gipuzko.eus/es/lazkao